**Aukeratutako proiektuak**

| 1 | **Jakiberri** |
|---|---|
| Isea, S. Coop. / Basque Culinary Center Fundazioa / Mondragón Centro de Promoción, S. Coop. / Debagoieneko Mankomunitatea / Jakion, SL / Auzo Lagun S. Coop. | |
| Aurrekontua: 125.268 € | Diru laguntza: 46.600 €. |
| Laburpena: Jakiberrik Lurraldeko Berrikuntza Sozialeko proiektu bat garatzea proposatzen du helburu duena Gipuzkoako elikadura eta gastronomia sektorean dinamika berritzaile, kolaboratzaile eta partehartzaileak sustatzea eta bideratuta dagoena zerbitzu lerro oso bat eta Euskal Fast Food osasungarri, naturala, anitza eta nutritiboa den eredu berri bat sortzea. | |

| 2 | **Goierriko Ekosistema Soziala** |
|---|---|
| Goierriko Ekimena, SA | |
| Aurrekontua: 53.664,16 € | Diru laguntza: 42.509 €. |
| Laburpena: proiektuaren helburua da ekosistema sozial bat sortzea erantzuna emango diona eskualdean etorkizunean izango diren erronkei, hauek direlarik baztertzeko arriskuan dauden pertsonen integrazioa, zahartzea eta genero desberdintasuna. Ekosistema sozial horretan bertako Gizarte Kontseilua osatzen duten eragile guztiekin landu nahi da enplegagarritasuna, berdintasuna eta zahartze aktiboa hobetzera bideratutako estrategiak. | |

| 3 | **Circular Hub** |
|---|---|
| Impact Hub Donostia, S.Coop. / Haiku C:B / Prosalus ONGD / Emaús Fundación Social | |
| Aurrekontua: 59.948,01 € | Diru laguntza: 47.408 €. |
| Laburpena: proiektuaren helburua da ezagutzera ematea lurraldean Ekonomia Zirkularra. Horretarako 3 lerro lantzea proposatzen da: mikro esperientzien garapena, balioetan oinarritutako hezkuntza eta lurraldeko eragile nagusiak inplikatzea ildo honetan. | |

| 4 | **Unibertsitatea eta elkarlaneko gobernantza: fazilitazio gaitasunen zabalkuntza** |
|---|---|
| Instituto Vasco de Competitividad – Fundación Deusto | |
| Aurrekontua: 59.670,00 € | Diru laguntza: 48.460 €. |
| Laburpena: proiektu honek kultura aldaketa bat lortu nahi du ikertzailearen paperean, osagarriak diren bi lan ildoekin: batetik, ikerlariak beste eragile sozial eta erakundeekin elkarlanean ezagutza sortze aldera bideratu behar du bere ekintza; bestalde, ikerlariak bere burua gaitu behar du gizarte kapitala sortzeko fazilitatzaile gisa eta lurraldearen eraldaketa sozialerako aktoreen ezagutzaren zabalkuntza dinamizatu behar du. | |

| 5 | Geroa Lantzen |
|---|---|
| Afagi | |
| Aurrekontua: 116.000,00 € | Diru laguntza: 47.449 €. |
| Laburpena: proiektuaren helburu nagusia da zabaltzea Gipuzkoan bolondres adituez osatutako eta generazio arteko kooperazioan oinarritutako "sareen sare" bat, zahartzeak, Alzeimerrak eta beste dementzia batzuek sortutako erronkei aurre egin ahal izateko. | |

| 6 | Kontziliazio parekidea |
|---|---|
| Emun Koop. Elkartea | |
| Aurrekontua: 20.674,98 € | Diru laguntza: 16.059 €. |
| Laburpena: kontziliazio parekidea helmuga duen proiektua da honakoa, familiaren, lanaren eta maila pertsonalaren bateragarritasuna erraztu eta ahalbidetuko dituena. Erakundeek duten jarduteko moduetan berrikuntzak egiteko bidea aurkeztea da xedea, eraginkortasunaren bidetik lana, familia eta alderdi pertsonala modu egokian eta orekatuan uztartuz. Enpleguaren arloan kokatzen da eta edozein entitate motatan aplikatzeko modukoa da. | |

| 7 | Diru laguntzen inpaktu soziala |
|---|---|
| Usurbilgo Udala / Oñatiko Udala | |
| Aurrekontua: 42.702,10 € | Diru laguntza: 33.446 €. |
| Laburpena: egitasmoaren helburu nagusia da, tokiko erakunde publikoentzat tresna berri bat sortzea, kudeatzen dituzten diru laguntzen deialdietan inpaktu soziala nabarmentzea ahalbidetuko diena. Aldi berean, deialdiak amaierako inpaktu sozialaren maximizatzera bideratu nahi dira, adierazle ekonomiko zuzenetatik haratago. | |

| 8 | Gizarte Berrikuntzaren Lurraldea |
|---|---|
| Huhezi SCL | |
| Aurrekontua: 60.265,00 € | Diru laguntza: 48.053 €. |
| Laburpena: egitasmo honen helburua da, aro aldaketaren testuinguruan eta egungo gizarte konplexuen egituraketan, gure lurraldeak aurrez aurre dituen desafioei erantzuteko, politikagintzan eta gizartegintzan gizarte berrikuntzan ildoan kokatzen diren paradigma eta egiteko modu berrien sustapenean laguntzea. | |

| 9 | Ikus-entzunezko sorkuntza Gipuzkoan: egoeraren diagnosia eta ekintza-proposamenak |
|---|---|
| Huhezi SCL | |
| Aurrekontua: 60.070,00 € | Diru laguntza: 47.282 €. |
| Laburpena: proiektuaren xedea da, batetik, herrialdeko ikus-entzunezko sektorearen diagnosia egitea, eta, bestetik, audientziari begirako esku-hartze proposamenak identifikatzea, ikus-entzunezko sorkuntza sustatu ahal izateko Gipuzkoan. | |

| 10 | Teknologia guneen sarearen hobekuntza |
|---|---|
| Ekai Center Fundazioa | |
| Aurrekontua: 43.150 € | Diru laguntza: 33.443 €. |
| Laburpena: proiektuaren helburua da, Alemaniako esperientziatik abiatuta, Gipuzkoan, politika teknologikoak sustatzeko eta hobetzeko jarduera proposamenak finkatzea. | |

| 11 | Onbizi |
|---|---|
| Urola Garaiko Garapenerako Agentzia, SA | |
| Aurrekontua: 64.755 € | Diru laguntza: 47.023 €. |
| Laburpena: Onbizi proiektuaren bigarren fasea bezala aurkezten da. Lehen fasean errehabilitazio prozesu eta egokitutako jarduera fisikoak garatzeko, herritar, familiarteko, zaintzaile eta osasun arloko langileria prestatze aldera eginiko unitate didaktikoen garapen praktikoan lan egin da. Bigarren honetan, unitate didaktiko horien kontrastea eta esperimentazio praktikoa garatzeko proposamena jasotzen da. | |

| 12 | OASISLAB |
|---|---|
| Emanhar Gizarte Elkartea / EDE Fundazioa / Asociación Socioeducativa Kiribil Sarea | |
| Aurrekontua: 59.900 € | Diru laguntza: 47.372 €. |
| Laburpena: OasisLab proiektuaren abiapuntua da, lurraldeko etorkinen inklusioa bultzatzen duten ekimen berritzaileak praktikan jarri eta prototipatzeko beharra. OasisLab proiektuak aukera eta eskubide berdintasuna onartu eta bultzatzen duen komunitate baten eraikuntzan jartzen du bere fokua. | |

| 13 | Etxean |
|---|---|
| LKS S.Coop. / OSI Donostialdea | |
| Aurrekontua:/ 81.186 € | Diru laguntza: 47.448 €. |
| Laburpena: Etxean proiektuaren helburuak honakoak dira:<br>• Helbidean zentratutako laguntza eredu berri bat diseinatu eta abian jartzea.<br>• Osasun eta gizarte zerbitzuen integrazioa eta koordinazioa. | |

| 14 | **Bizilabe Gazteentzako ikerketa-zentroen sarea** |
|---|---|
| Elhuyar Fundazioa | |
| Aurrekontua: 137.300 € | Diru laguntza: 47.448 €. |
| Laburpena: Neska-mutilak modu autonomoan zientzia eta teknologia gaien inguruan ikertzeko eta aritzeko ikerketa-zentroen sarea osatzen du Bizilabek. Proiektu honetatik, gazteen etorkizunerako aukeretan eta bizi diren eskualdearen etorkizuneko lehiakortasunean eragin nahi da. | |